


STM

San Telmo Museoa

Zuloaga plaza 1
20003 Donostia – San Sebastián
Telefonoa: 943 48 15 80
santelmo@donostia.org
www.santelmomuseoa.com

San Telmo Museoa 

JENDEAK ETA PAISAIAK MENDEZ MENDE ARTEAN ZEHAR

Arte Plastikoei buruzko
Ibilbide Tematikoa
Publiko nerabe eta helduentzat





IBILBIDE TEMATIKOA

San Telmoko arte ederren bildumak azalbide klasikoa eskaintzen du ordena kronologiko eta estilistikoan, bai artelanen aurkezpenean, bai eta haien ondoan idatzizko informazioan ere: Gotikoa, Errenazimendua, Barrokoa, Neoklasizismoa, XIX. mendeko korronteen zabaltzea, XX.eko abangoardiak... Artearen historian lehen mailako artisten obrak ere baditu ikusgai: Greko, Tintoretto, Rubens, Sorolla... bai eta euskaldunen artean ere: Regoyos (Euskal Herrian egindako lanak), Iturrino, Zuloaga, Arteta, Ucelay, Lekuona, Oteiza, Chillida, Basterretxea, Ameztoy, Ferrer...

Hortaz, Bigarren Hezkuntzako programei egokitutako errepasoa egin nahi lukeen irakasleak lasai asko antola lezake halako bisitaldia, bertako gidarien beharrik gabe, antolatu ere. Jakina, nahi izanez gero beti eska daiteke alde zuzenetik informazio zehatzagoa eman dakien, edo bisitaldi pertsonalizatu bat, taldearen interes eta ahalmen arabera.

Esan bezala, Museoak baditu artelan asko eta denetarioak: XV. mendetik XX.era bitartekoak, hainbat egile, estilo, teknika, gai... islatzen dituztenak, Arte Ederrei eskainitako bi erakustaretotan antolatuta: "Bilduma Historikoa" eta "Euskal Artearen 100 urte" delakoetan. Aniztasuna eta oparotasuna dira, bada, haien dohain handiak. Bisitaldi bakar batean gutxienezko kontzeptu batzuk argi eta garbi utzi behar direnez gero, aldiz, bi ildori baino ez erreparatzea deliberatu dugu. Izan ere, helburu nagusia da publikoak funtsezko zerbait ikas dezan: gustu estetikoetatik harago, ez dago artea eta haren bilakabidea ulertzerik, artea ekoitzi duen gizartea eta haren bilakabidea ezagutu gabe.

Beraz, ibilbide tematiko honetan proposatzen den gidatutako bisitaldi motan honako bide hauek jorratuko dira: erretratua eta paisaia. Haien bitartez, haien mendez mendeko bilakabideaz, arte plastikoaren estilo nagusiak ez ezik, haiek sorrarazi eta garatutako gizartearen eboluzioa ere ulertu ahal izango da: pintura erlijiosotik udatiarren, langileen eta baserritarren giroetara, erregetzaren, aristokraziaren eta burgesiaren pintoretan barrena. Betiere, publiko mota orok uler dezakeen diskurtso arin eta orokorrean.

Jakina, bisitaldi gidatua kontratatu beharrean taldeak bisitaldia bere kabuz egin nahi badu, hemen agertzen diren bisitaldi gidatuarekiko erreferentziak haren taldeko irakasle edo arduradunen gain geratuko dira. Hartara, hoberena museoa alde zuzenetik bisitatzea da. Dena den, hark egin nahi lituzkeen azalpenez aparte eta haien lagungarri, koaderno honetan bisitaldi gidatua egiten diren azalpenak gehitu dira. Azalpen horietako datuak edota gogoetak taldeko kideei helarazi ala ez, eta, egitekotan, nola, irakasle edo arduradunen gain geratzen da, beraiek baitira taldea hobekien ezagutzen dutenak. Halaber, haien esku geratzen da bisitaren aurretik edo ondoren jorra litezkeen gaien osagarri gisa erabiltzea edo ez.

Bisitaldi gidatuaren nondik norakoak:

Bisitaren hasiera:

Ongietorria, Museoaren aurkezpena eta jorratu beharreko gaiaren azalpena.

Eliza: Ikus-entzunezkoa (13 min.)

Ibilbide tematikoa:

2. solairuan hasiko da. Elizatik, klaustroan zehar, dorrera (irteera aldera); handik igogailuz edo eskaileraz igo daiteke, 2. solairuraino. Bilduma Historikoaren erakustaretoan sartu eta egin bidea XV. mendetik aurrera; gero, eskaileratik jaitsi eta aterata, haren aldeko klaustroan "atzera" egin eta dorre ondoan dagoen *Euskal Artearen 100 urte* erakustaretoko beste atetik sartuta, haren hasieratik berrabiaraziko da.

Jarduera osoa egiteko, gutxienez ordubete kalkulatzen da.





XV. MENDEA: ERLIJOAREN NAGUSIGO ERABATEKOA, BAINA...

SARRERA

XV. mendean hazkunde ekonomiko handia eman zen Euskal Herrian, besteak beste Gaztelako artilea Flandesera eraman eta hango manufakturak ekartzeko itsas garraioan eta bide batez herrialde bietara euskal burdinaren merkataritzan ibili zirelako euskaldunak. Flandesko manufakturen artean, hona hemen Flandesko eskolako irudi zenbait.

ERRETRATUA

Hauei biei erreparatuko diegu: San Joan Bataiatzaileari eta San Joan Ebanjelariari. Izena letrero moduko batean dute idatzia. Izan ere, ikonografiak gizonezko santuak direla baino askoz gehiago ez digu esaten. Elementu sinbolikoak badituzte, halere, agertzen diren animalia eta landareetan. Adibidez, sugez beteriko kaliza, San Joan Ebanjelaria enperadore erromatarrek pozoituta hil nahi eta, legendak dioenez, ardoaren pozoia suge bihurtuta lurrundu zen. Baina giza irudiak, berez, ez dira bereziki pertsonalizatuak: sinboloak aldatuta, ia edozein santu izan litezke. Ikus, bestela, ondoko koadro bietan, nola santu biek anaiak diruditen.





JENDEAK ETA PAISAIAK, MENDEZ MENDE ARTEAN ZEHAR

Arte Plastikoei buruzko Ibilbide Tematikoa

PAISAIA

Hondoko paisaia naturalek ere ez dute inongo ezaugarririk, ez dira “toki ezagun bat”, sinbolismoa baizik. Adibidez, Bataiatzailearen kasuan, bere presentzia hutsez basamortua berdetu egiten omen zuen. Animalien eta landareen funtzio sinboliko horretan (txoriak, untxia, loreak) garbitasunaren eta xalotasunaren sinbolo dira; lumak idazteko erabiltzen zirenez, Ebanjelariaren ondoan hegazti batek tintontzia eta luma mokoan dakartza.



Landareen kasuan, funtzio sinboliko bera badute ere, teknikoki oso errealistak dira, batez ere aurreko garaietako koadroetakoan aldean. Sekulako aurrerapena da, lehenik eta behin, sinbologiaz gain, konposizio aldetik oso “naturalista” delako: hainbat plano urrun sentsazioa emateko, elementuen kolorea, eitea, haien arteko proportzioak... errealistak dira. Aurreko estilo artistikoan, Erromanikoan, tamainak elementuaren garrantzi sinbolikoa adierazten zuen, ez zen errealista, eta paisaiaren kontzepturik ez zegoen.

TESTUINGURUA

Teknika aldatu izanak ere eragina izan zuen halako errealismoa lortzeko tenorean, margotzeko olioia gero eta gehiago erabiltzen zelako, eta hark ahalbidetzen zuen zehaztasuna eta xehetasunetaraino iristea. Baina teknika ez da dena: gizartea ere aldatzen ari zen, eta, erlijioari uko egin gabe ere, gizakia protagonismoa irabazten ari zen.





XVI. MENDEA: GIZAKIAREN PROTAGONISMO BERRIA

SARRERA

Errenazimendua XVI.ean bete-betean loratu zen. Erlijioaren garrantzia ez zen apaldu, aitzitik ere, erlijio-gerrek erakutsi bezala; baina gizonak (askoz gutxiago emakumeak) protagonismo berezia hartu zuen. Arteak, Herbehereetakoak nahiz Italiakoak, sekulako indarra hartu zuen: bakoitzak bere bidetik eta garai klasikoetan oinarrituta, sekulako pizkunde artistikoa eta humanistikoa zabaldu zen.

ERRETRATUA

XV. mendean herabe agertzen hasitako genero berria, erretratua, indar biziz loratu zen XVI.ean, inoiz ez apaltzeko. Gizakiak bere indibidualtasuna goretsi ahala, arteak irudikatu egingo du: dagoeneko ez da nahikoa sinbolikoki agertzea, koadroak erretratutakoaren antz fisikoa behar du, eta perfekzio teknikoa erdietsi zen. Jakina, indibidualtasun hori ez da mundu guztiarena, halako teknika garestia ordain dezakeenarena eta halako botere ekonomiko, sozial eta politikoa erakustearekin batera besteen aurrean areagotu, bermatu nahi duenarena baizik: erregetzak dira erretratu generoaren bezero nagusiak.

Mirabearena bezalako obra xarmentak badauden arren, nagusitzen dena koadro handia da, erretratatuaren ezaugarri fisikoez gain bere boterearen adierazpenez (hala nola armadura militarrena) guztiz hornitua agertzen dena.





PAISAIA

Paisaiak gero eta protagonismo handiagoa du, ia autonomo izateraino. Baina, oraindik orain, "ia" soilik. Bi adibide:

Mahatsaren Amabirjina: Ama eta Haurra kenduta, guztiz definitua eta bere egunerokotasunean (etxeak, baserritarra goldaketan...) guztiz naturalista den beste koadro bat izango genuke.



San Joan Patmos uhartean: sinbolismoak desagertu gabe ere (arranoa, adibidez), koadroa erditik ebakiz gero, bi koadro izango genituzke: batetik, San Joan (bide batez esanda, gazte eder sasoikoa, giharretan Michelangeloren eragina erakusten duena) oihaletan ere fin-fin landua; bestetik, guztiz naturalista den paisaia ederra.



TESTUINGURUA

Amerikaren konkistarekin batera europar monarkiak eta burgesiak (batez ere Holandan da nabarmen) sendotu ahala, Eliza ez da bezero bakarra (bai oraindik nagusia), eta motibo berriak sortu edo protagonismo berria hartzen dute.





XVII. MENDEA: KONTRASTEEN GARAIA

SARRERA

Barrokoa urrezko aroa da arte plastikoentzat. Ameriketako urrea eta zilarra Europara Sevillan barrena sartzen dira, eta burgesia katoliko berri bat sortzen da. Eskulturan prozesioetako zurezko irudiak nagusitzen dira, Elizarenak eta era berean oso herrikoiak direnak. Pinturaren bezero nagusiak lehengo berak dira, erregetza eta Eliza, baina formatu txikiagoko koadroak eskatzen dituzten bezeroak ere badaude.

ERRETRATUA

Mariana Austriakoren erretratua bikaina da konposizio (lerro diagonal eta perpendikularren jokoak, adibidez) eta egintza aldetik. Lehen begiradan soila, ia xumea, dirudien arren, dena guztiz estudiatua dago: eserita dago, eta perspektibagatik sumatzen da begiralea zutik dagoela (hortaz, hura da agintaria eta “gu” zerbitzariak, ez gaude maila berean). “Guri” begira dago, baina haren begiradak ez du hurbiltzeko gonbiterik egiten, kikildu baizik. Ez da emakume gaztea, ez da aurpegiz ederra (gorputza sumatu ere ez zaio egiten), ez eta atsegina ere, “eta beharrik ere ez”, esanez imajina genezake. Bitxirik edo koloreko jantzirik ez: zuri-beltza nagusi, boteredun alargun bat da, inoren aurrean inolako justifikaziorik eman behar ez duena.





PAISAIA

XVII. mendean, erlijioa nonahi dago; izan ere, hain da egunerokoa ezen paisaiaren parte bat bilakatzen baita, hitzez hitz, partaide bilakatu ere. Ignacio Iriartek (jaiotzez azkoitiarra, baina margolari gisa Sevillako eskolakoa) egindako bi koadro hauetan motibo erlijiosoa txiki geratzen dira tamainaz paisaia batean; hots, paisaia bera da “benetako” motiboa.



San Pedro gurutziltzatuaren kasuan are nabariagoa da: eszena berez beheko albo batean dago, ez zentratua, eta koadro osoaren laurdena baino gutxiago okupatzen du. Areago, bortizkeria izugarritzko eszena izan arren, arrunta ematen du, eta paisaiak, dramatikotasuna islatu edo areagotu beharrean (ekaitzak, uholdeak, amildegia) baretasuna erakusten du.



TESTUINGURUA

XVII. mendean, Eliza Katolikoa indartu den herrialdeetan, jadanik XVI. mendeko Holandan bezala, burgesia katoliko bat badago, paisaia zalea; baina protestanteak nagusi diren herrialdeetan ez bezala, koadro erlijiosoak nahi ditu; ez, ordea, elizetakoak bezain handiak, haien etxeetan ikusteko baizik, eta paisaiak motibo erlijiosoekin bat egiten du.





XVIII. MENDEA: DOKUMENTATZEKO ARTEA...

SARRERA

Barrokoa desagertu gabe ere, “gizatiartu” egin da, leundu, Rococo estiloan, eta era berean Neoklazismoa sortu da: zientzia, neurria, proportzioa, errealismoa, argi-itzalen joko bortitz eta eszena odoltsuen gainetik, betiere Grezia eta Erroma klasikoak eredu hartuta. Figurak nahiz paisaiak diren bezala agertu nahi dira, pixka bat idealizaturik bada ere: dena orekatua dago, dena “garbi”.

ERRETRATUA

XVIII. mendean koloreak leunagoak dira, kontraste bortizik ez da agertzen, eta oro har jendea “adeitsuago” agertzen da. Jende diruduna da protagonista, ezinbestean, pintura oraindik teknika garestia izanda. Baina jada ez dute agertu nahi boteretsu eta urrun, hurbil eta “gizatiar” baizik. Hiru erretratuotan garbi ikusten da. Hasteko, hiruek hurbiltasuna iradokitzen dute, gorputz erdikoak izaki.



- Jaun diruduna (janzkeraren arabera), orduko handikien ile-orde zuririk gabe eta bizimodu ez aristokratikoa iradokitzen duen belarritakoarekin erretratua da.
- Dama dotore jantzita dago, baina soinekoa ez da nabarmenena, eta lepoko harribitxiaren ordeaz buruan loreak ditu.
- Itsas Armadako ofiziala ez da galaz jantzia, eta armarik ez du aldean, lanaren alderdi zientifikoa (mapamundia, liburuak, itsas kartetan distantziak neurtzeko konpasa) baizik.





PAISAIA

Bartzelonako eta Tortosako ikuspegi hauek paisaia bareak, orekatuak... baina bene-benetakoak erakusten dituzte: koadroetan agertzen diren neurriak, proportzioak, eta abar paisaian aurkitzen dira (edo ziren, duela ia hiru mende). Paisaia da protagonista bakarra. Figurak, halako paisaian aurki daitezkeen langileak dira, arrantzaleak eta garbitzaileak. Baina ez dute batere protagonismorik, benetakotasuna areagotzeko bestetako ez daude; izan ere, bizkar emanda agertzen zaizkigu, protagonistak ez diren seinale.



Gauza bera esan daiteke ondoko paisaia arkeologikoan. Izenburuak berak azaltzen digu motiboa. Pertsonaiak ahuntzainak edo arkeologoak ote diren ezin jakin: badirudi gehiago daudela aiurri arkeologikoen neurria eta eskala emateko, ezen ez bertan eszena bat sortzeko. Eta erlijiorik ez... ez baldin bada paganoa, erlijio gisa baino, garai klasiko baten erreferentzia kultu modura.



TESTUINGURUA

XVIII. mendea "Argien mendea" da, Neoklasizismoarena, Ilustrazioarena, zientzia eta aurrerapen teknologikoa lehenesten dituena, aurreiritzien gainetik. Erlijioari uko egin gabe, iritzi- eta adierazpen-askatasuna aldarrikatzen da, eta gizaki mundutarra hobesten du, "zerutiar" gaien aldean.





XIX. MENDEA: ANIZTASUNA NAGUSI

SARRERA

XIX. mendean estilo eta teknika piktorikoen eboluzio izugarri azkarra eman zen. Aniztasuna da nagusi. Gai berriak aukeratzea, edo lehengo gaiak bestelako begiradaz proposatzea, batzuetan modu kontrajarrian, gizartearen etengabeko aldaketak eta kontraesanak islatzeko bide bat zen.

ERRETRATUA

Sorollaren eskalea eta ijitoa erretratu hutsak dira, ez dira inolako sinbolismo edo metafora gisa hartu behar. Argazkilaritza zabaldu ahala, erretratua demokratizatu eta pinturak ez du jada bertan dokumentazioa bilatzen, espresioa, psikologia, bizitasuna baizik. Eta, jakina, egilearen trebezia erakustea halako dohainetan. Horregatik, gizarteak baztertutakoak ere erretratatuak izan daitezke: artelana bera da inportantea, ez artelanean agertzen den pertsonaia.





PAISAIA

Dokumentatzeko argazkilaritza badagoenez, edo bestelako arte grafikoak (estampak, grabatuak, mapak...) paisaia guztiz liberatua dago, eta motibo hutsa da: izenburuek Getaria, Llobregat, Donostia... aipatuagatik, artistari inporta zaion bakarra kolorea eta forma da, maiz uraren eta zeruaren arteko islaren jokoak, non landareen berdeak (edo arroken arreak, edo lurraren gorriak... koadroen arabera) kontrastea areagotzeko marrarena egiten duen. Esaterako, Veneziako Kanale Handia dela badakigu izenburuarengatik eta urrutiko eliza batengatik. XVIII. mendeko veneziar paisaiak ez bezala, orain Veneziak ez du garrantzirik, zerua islatzen duen urmaela baizik, gondola baten txikiak areagotua.



Halaber, edertasun hutsa bilatzen duten gaiekin, gizarte berriaren paisaia berriak ere sortu dira: trenbideko istripuaren hondo industrialak errealismoa bilatzen du, ez "edertasuna". Ildo beretik, baino areago, Frantziako garraiolariaren zaldiek paisaiaren beste atal bat erakusten dute, orain arte agertu gabea: eguraldia bera. Orain arte "ez du inoiz euririk egin" paisaietan, lainoen jokoak askotan erabili arren. Hemen, animalien eroria, lurraren lokatza, urruti egon ez arren definitu gabe agertzen den garraiolaria... protagonista euria da. Kontzeptualki ere, euria agerrarazteko trebeziak ez du edertasuna bilatzen, eguneroko egoera latz baten benetakotasuna baizik.



TESTUINGURUA

Frantziako Iraultzaren ondotik mundua izugarri aldatzen ari zen. Industrializazioarekin batera burgesia nagusitu eta langileria garatu zen, eta bestelako klase herrikoiak, ordura arte artean apenas agertuak, tipikotzat hartu eta agertzen hasi ziren, baita marjinalak ere. Adibidez, Sorollaren obrak berdin erakusten dizkigu goi mailako andreak kafetegian (aisiaren kultura sortu zen) eta ijitoa eta eskalea. Sorolla bera gidari, paisaia kolore huts bilakatzeko prozesua ere ikus dezakegu.





XX. MENDEA: **KULTURARTEKOTASUNAREN ADIBIDE** **GALANTA SAN TELMON**

SARRERA

Antonio Ortiz Echagüeren pinturak XX. mendeko artearen aniztasuna ederki islatzen du. Hainbat tokitan bizi izan zen, eta margolanetan tokian tokiko estilo eta gaietara primeran egokitzen zen. Argi eta koloreen erabileran maisua zela frogatu ondoren (Amaren musua koadroa ez da ibilbide artistikoaren burutzapena, hasiera baizik), beste ezeren gainetik artea bizipoza adierazteko erabiltzea erabaki zuen, familiaren erretratuetan ederki erakutsita.

ERRETRATUA

Holandako andreen koadroan, aurpegiaren antz fisikoetatik harago, eszenaren errealismoak bizimodua islatzera eramaten zuen: bizimodu soila, zorrotza, mundu-ikuskerari zuri-beltzean duten andreen psikologia islatzen duena. Halaber, XVII. mendeko maisu handien lana primeran ezagutzen zuela erakutsi zuen, konposizioan, eitean, teknikan... koadroa garai hartakoa izan zitekeen eta.





PAISAIA

Marokon, berriz, erretratua ez zitzaion interesatu. Jakin ere, ez dakigu andreek benetan ez zuten gehiago erakutsi nahi, edo artistak erabaki ote zuten hala agertzea, begiradaren jokoa misterioz eta iradokizunez betea dago eta. Bestetik, mantxa urdin eta zurien jokoa da interesatzen zaiona, ez du batere zehaztasunik bilatzen paisaian.



Mediterraneoko argia, zeruan baino gehiago (urdina arropetarako erabili du), hodeien zurian eta haiei darien argian erabili du: begirada bakarrean osorik ikusteko koadroa planteatu du.

TESTUINGURUA

Museoaren bilduma osatzeko tenorean, hainbat irizpide metatu dira. Askotan ez dira berariaz bilatutako obrak, gordailu gisa eta, kasu zenbaitetan, administrazioak bahituriko gai gisa iritsi zaizkio. Halaber, eta hau da Echagüeren koadroen kasua, euskal jatorriko familiak, Guadalajaran finkatu eta gerora Argentinan bizi zelarik, Donostian ematen baitzituen udak, Museoari egindako dohaintzen ondorio dira. Museoa erakunde bizia da, gizartearekin etengabeko harremanetan egon behar duena; eskuratutako bildumak harreman jori horren isla izan ohi dira.





EUSKAL ARTEAREN 100 URTE:

ARTEAREN EBOLUZIOAREN EUSKAL ADIBIDEAK - I

SARRERA

Pentsatzekoa zen bezala, euskal artearen eboluzioa oro har europar artearen parekoa izan da. "Euskal gaiak" izan arren (baserria, arrantza... goian Andaluzian toreroak, prozesioak eta erromeriak aurkitzen genituen bezala) garaian garaiko estiloak topatzen ditugu: errealista, naturalista, inpresionista, espresionista, gerora kubismora eta hiperrealismora jotzen dutenak ere bai.

ERRETRATUA

Zuloagak erretratuak lehenetsi zituen, maisuki, lehenetsi ere. Euskal artista izanda, ez zion uko egin "euskal tipoak" irudikatzeari; baina 98koen belaunaldiko euskal idazleek egindako gauza bera egin zuen pinturan: Gaztelako paisaiak irudikatu, eder baina gordin, Segovian edo Tureganon bezala. Dena den, erretratuetan pertsonaia osotasunean agertzea interesatzen zaio: hazpegiak, psikologia, maila sozioekonomikoa, gustu pertsonalak... bai eta maisuki lortu ere!





PAISAIA

Idealizazioaren, naturaltasunaren eta ironiaren (Nire herriko intelektualak) artean, euskal pinturak aurrera egiten du. Erronomia gai tipikoa da, herri nortasunaren alderdi folklorikoenak agertzeko modua ematen duena: euskaldun fededun topikoa, janzkeran, musikan, dantzan beste inor ez bezalakoa. Honako honetan, ordea, egileak modernizatu egin du gaia. Ermita badago, baina azken planoan, ez da osorik ere ikusten, eta hantxe bukatzen da erreferentzia erlijioso oro. Gizon-emakumeak, kaletarrak izan, baserritarrak izan, garaiko janzkera daramate, ez “baserritar jantzia”, berez XIX. mendeko janzkeran oinarritutako emaitza folklorikoa. Txistulariak eta dantzariak badaude; baina aureskua edo halako dantza erritualaren aztarnarik ez: musika herrikoa bai, baina modernoa izan daitekeena.



TESTUINGURUA

Bilbo inguruan garatutako euskal burgesia aberastuak, errealitate idealizatu baten bila, azkar aldatzen ari den baserri giroko irudiak eskatzen ditu. Errealitate industrial eta urbanoaren adibide batzuk badaude ere, ez dira arruntenak. Gai sozialak ez dira falta, baina salaketatik gutxi dute: eskalea, Miserikordia Etxeko jantokia, gaztetxo alprojak...

1936ko gerrak eten traumatiko bat suposatu zuen euskal gizartean, bai eta kulturaren ere. Artean, adibidez, Nikolas Lekuona surrealista, collageen erabiltzailea, gerran hil zen: hogeitabateko mozketaren metafora.





EUSKAL ARTEAREN 100 URTE:

ARTEAREN EBOLUZIOAREN EUSKAL ADIBIDEAK - II

SARRERA

Bilduma historikoa XX. mendearen lehen herenean geratu bada ere, merezi du iruzkin batzuk egitea geroko euskal arteaz, erretratuaren eta paisaiaren ildotik jarraitu eta haien bidez artearen nondik norako nagusien aurkezpen xume hau burutzeko.

ERRETRATUA

Oteizaren itzalpean, hainbat artista bikain garatzen dira, euskal erroetatik abiatuta estetika guztiz berria plazaratzen duena, abstraktua. Hurrengo belaunaldiek, aldiz, aurrekoengandik ikasita ere, bide berriak jorratzen dituzte. Hala esanda paradoxikoa badirudi ere, bide berriek erretratuari eta paisaiari heltzen diote. Erne, ez da atzera egitea, lehengo konbentzioetara itzultzen ez direlako. Ramon Zuriarrainen bikote baten erretratua formaz errealista den arren, onirikoa da, oso; eta, kontzeptualki, "metapintura" dela esan daiteke, erretratatuak baitira era berean erretratugileak. Bistan da artelanaren helburua ez dela agertzea, inola ere, pertsonen hazpegiak eta zantzu fisikoak edota psikologikoak, edo haien maila sozio-ekonomikoa. Egia esan, ordurako argazkilaritza bera ere askatu da ustezko objektibotasunetik.





PAISAIA

Parean dagoen Ameztoyren paisaiaz gauza bera esan liteke. Abstrakzioetik ihes egiten duen egilea izanda ere, eta teknikaz xehetasun eta zehaztasun handiko margolaria izanik, ez du inondik inora paisaia errealak irudikatzeko asmorik, guztiz paisaia onirikoak baizik. Euskal paisaien berdetasun tipikoa, landareen berdea izanagatik, nolabait kezkarri bihurtu da, barne-tentsioen adierazgarri. Zuriarrainen hondoan agertzen ziren zuhaitz mehe horiek paisaia irrealia iradokitzen zuten bezala, hemen pintatutako elementu bakoitza guztiz erreal bada ere, emaitza fantastikoa da. Haren aldean, Goenagaren itsaspeko paisaia bera ere sinesgarriago zaigu!



TESTUINGURUA

Frankismoa bukatuta, kultura errepresio politikotik askatu denez nortasun-erantzuna ez denez gero, euskal artea Euskal Herrian egiten den artea da, hainbat tokitatik edan eta nonahi erakuts daitekeena.

Bestalde, nazioartean arteak aspaldi utzi dio “edertasuna” bilatzeari edo nolabaiteko “diskurtsoa” osatzeari. Artistaren indibidualtasuna gailendu da eta ikusleengandik emozio bat (atsegina izan, desatsegina izan: berdin dio) sentitzea baino ez du espero. Kitzikatzea du helburu, indiferente ez uztea.






JENDEAK ETA PAISIAK, MENDEZ MENDE ARTEAN ZEHAR

Arte Plastikoei buruzko Ibilbide Tematikoa

donostia**kultura**.com



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputacion Foral de Gipuzkoa

Patrono pribatuak:



EL DIARIO VASCO



berria^{info}

GARA

naiz:

